



LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2016KO IRAILAREN 22KO EBAZPENA, IKUSKARITZAKO ZONALDE BURUAK HAUTATZEKO PROZESUA DEITZEN DUENA.

Ekainaren 28ko 98/2016 dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Ikuskaritzarena, 15.2. artikuluan xedatzen duenez, zonaldeburuak zerbitzu-eginkizunetan izendatuko dira Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzaren ebazpen bidez, ikuskaritza-zonaldeari esleitutako Hezkuntza Ikuskarien Kidegoko funtzionarioen nahiz desagertutako hezkuntza administrazioaren zerbitzuko ikuskarien kidegoko funtzionarioen artean merezimenduen lehiaketa egin ondoren, berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioen arabera.

Lehiaketa horretan, Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritzak batzorde bat izendatuko du. Batzorde horrek baloratuko ditu egindako lana, zonaldeko esku-hartze proiektua eta izangaien ikuskaritza-jardueraren antzintasuna. Zonaldeburuei egitekoak esleitu zaizkie bi urteko epealdi baterako, egindako lanaren ebaluazio positiboa egin bada. Epealdi hori lau urtera arte luzatu ahalko da

Horren arabera, eta apirilaren 19ko 193/2013 dekretuak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10.2.c) artikuluan xedatutakoren arabera,

EBAZTEN DUT

Lehena.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea ondorengo funtzioak betetzeko aukeratze-prozesua deitzea da:

- Bizkaiko 1. Ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Bizkaiko 2. ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Bizkaiko 3. ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Bizkaiko 4. ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Gipuzkoako 1. Ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Gipuzkoako 2. ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Gipuzkoako 3. ikuskaritza-zonaldeko burutza.
- Arabako ikuskaritza-zonaldeko burutza.

Bigarrena.- Parte hartzeko eskakizunak.

Hezkuntza Ikuskarien Kidegoko karrerako funtzionarioa izatea eta eskatzen den burutzari dagokion ikuskaritza-zonaldean esleituta izatea 2016ko irailaren 1ean.

Hirugarrena. Eskabideak formalizatzea eta horiek aurkezteko epea

Eskaerak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariari zuzenduko zaizkio eta ondoko lekuetan aurkeztu ahalko dira:



- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren lurralde-ordezkaritzetan.
- Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazitako erregistroetako edozeinetan.

Eskaerarekin batera bete beharreko funtzioei buruzko memoria aurkeztu behar da derrigorrez, gehienez ere 15 orrialdetakoa.

Eskaera egiteko epea 2016ko irailaren 23tik urriaren 6ra izango da, eta ez da inolako eperik emango eskaera, memoria edota dokumentazioa zuzentzeko. Memoriaren baldintza ez betetzeak lehiatzailea deialditik at geratzea ekarriko du.

Laugarrena.- Balorazio-baremoa.

Eranskinean zehazten den baremoaren arabera baloratuko dira bai merezimenduak, baita memoria eta elkarrizketa ere.

Prozesuan jarraitzeko eta hau gainditzeko beharrezkoa da memorian zein elkarrizketan gutxienez puntu bat izatea.

Bosgarrena.- Balorazio-batzordea.

Ondorengo kideek osatutako balorazio-batzordea:

- Hezkuntza sailburuordea, batzordeburu gisa ari izango dena.
- Hezkuntza ikuskari nagusia.
- Hezkuntza lurralde ordezkaritza bat, Hezkuntza sailburuordearen proposamenez.
- Lurralde burua den Hezkuntza ikuskari bat, Hezkuntza ikuskari nagusiaren proposamenez.
- Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, idazkari gisa, ahotsarekin baina botorik gabe, ari izango dena.

Halaber, Batzordeak sektorean ordezkaritza duen sindikatu bakoitzaren ordezkaritza bana izan ahal izango du, ahotsarekin baina botorik gabe.

Seigarrena.- Ebazpena.

Behin-behineko ebazpena eta erreklamazioak.

Balorazio-prozesua egin ondoren, balorazio batzorde orokorraren lehendakariak, Langileak Kudeatzeko zuzendariari bidaliko dio deialdi honen ebazpenaren proposamena, azken honek deialdiaren Behin-behineko Ebazpena eman dezan. Bertan, onartu eta baztertutako izangaiak azalduko dira; era berean, izangai bakoitzari emandako puntuazioa ere azalduko da.

Behin-behineko Ebazpena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunean argitaratuko da.



Hiru egun balioduneko epea izango da erreklamazioak egiteko.

Behin betiko ebazpena.

Izan daitezkeen erreklamazioak aztertu ondoren edo erreklamaziorik ez balego, Langileak Kudeatzeko zuzendariak jakitera emango du deialdiaren behin betiko ebazpena. Bertan, hautagai bakoitzari emandako balorazioak azalduko dira, hautatutako eta baztertutako pertsonen azken zerrenda emango da, eta hutsik gera zitezkeen lanpostuak ere azalduko dira. Hautagaiek lanpostuetan eskatutako baldintza guztiak betetzen badituzte —barnean hartuta balorazio-baremoan eskatutako gutxieneko puntuazioa—, deitutako lanpostuak ezingo dira hutsik geratu.

Aipatu ebazpena Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunean argitaratuko da.

Behin betiko ebazpenaren kontra, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Zazpigarrena.- Izendapena eta luzapena.

Hautatutako ikuskariek esleitutako funtzioak beteko dituzte, izendatuak izan diren datatik aurrerako ondorio ekonomiko eta administratiboekin. Era berean, 2.799,02 euro gehituko zaizkie ikuskari-lanpostuetarako ezarritako urteko osagarri espezifikoan.

Funtzioak betetzeko izendapena bi urterako izango da. Aldi hori igaro ondoren, egindako lanaren ebaluazioa positiboa bada, beste bi urtetarako luzatu ahal izango da.

Zortzigarrena.- Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileek ematen dituzten datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira; fitxategi horren helburua deialdi hau kudeatzea izango da. Fitxategiaren arduraduna Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza izango da. Datuak atzitu, zuzendu, ezereztu eta aurka egin nahi izanez gero, bertara jo behar da: Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz.

Fitxategi horren erabilera eta funtzionamendua, betiere, izaera pertsonaleko datuen babesari eta titulartasun publikoko izaera pertsonaleko datuen fitxategiei buruzko legediko aurreikuspenetara egokituko da (15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzkoa; 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa; eta garapeneko araudia).

Eskatzaileak ados daude beren datu pertsonalak deialdi honetan ezarritako xederako eta bertan aipatzen den bezala erabiltzearekin, bai eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko webgunean (www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus) eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Lurralde Ordezkaritzetako iragarki-tauletan argitaratzearekin ere, baina deialdiaren berezko izapideetarako soilik.

**Bederatzigarrena.- Ordezko araudi aplikagarria.**

Ebazpen honek prozedurari dagokionez arautu ez duen orotan, aplikagarria izango da azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

ERREKURTSOAK

Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 114. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren arabera, erabaki honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean ebazpena argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 22a

Izpta.: Konrado Mugertza Urkidi
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA



ERANSKINA

I. Esperientzia Hezkuntza Ikuskaritzan:

Ikuskari nagusi, Ikuskaritza Nagusian mailako ikuskari koordinatzaile edo ikuskari zentral gisa zerbitzuak emandako hilabete osoko	0,020 hilabeteko	puntu	1,5 puntura arte
Ikuskaritzako lurralde buru gisa zerbitzuak emandako hilabete osoko	0,020 hilabeteko	puntu	1,5 puntura arte
Barrutiko ikuskari koordinatzaile gisa zerbitzuak emandako hilabete osoko edo zonalde burutzaren funtzioak bete izanagatik	0,020 hilabeteko	puntu	1,5 puntura arte
Hezkuntza Ikuskaritzako kargu gabeko ikuskari gisa zerbitzuak emandako hilabete osoko	0,010 hilabeteko	puntu	1,5 puntura arte

*Denbora aldi bera ezin izango da bitan, atal desberdinetan, kontatu.

II. Memoria eta elkarrizketa

Bete beharreko funtzioei buruzko memoria: gehienez hamabost orrialde.	Gehienez ere 2 puntu
Aurkeztutako memoriaren edukiarekin zerikusia izango duen entrebista.	Gehienez ere 2 puntu

*Memorian baloratuko diren alderdiak, lanpostuari lotutakoak, hauek dira:

- Zonalde burutzaren funtzioak betetzeari buruzko proposamena:
 - Zonaldeko taldearen lana zuzendu, antolatu eta koordinatzea.
 - Zonaldean urteko /lurralde plana nola betetzen den kontrolatu eta ebaluatzea.
 - Zonaldeko ikastetxeetan esku-hartzea.

(puntu 1era arte)
- Zonalde burutzaren lidergoa, zonaldeko ikastetxeak hobetzeko prozesuei buruzkoa:

(0,33 puntura arte)
- Kalitateko hezkuntza jasotzeko ikasleen eskubidea bermatzen laguntzeko zonalde burutzaren ekarpena:

(0,33 puntura arte)
- Lurralde burutzekin eta Ikuskaritza Nagusiarekin koordinazioan eta lankidetzan aritzea:

(0,33 puntura arte)

*Entrebistan, memoria garatu beharreko alderdiak, funtsean, oinarri izango dituen, lehiatzaileen alderdi hauek baloratuko dira:

- Zonalde buruaren karguan bete behar diren funtzioen garapena (0,5 puntura arte)
- Ikuskaritzaren funtzioak eta jarduerak betetzeko behar diren gaitasun tekniko-profesionalen, sozialen eta etiko-profesionalen ezaguera. (0,5 puntura arte)
- Memorian adierazitako planteamenduen eta horren zehaztapenaren (jardueraren proposamena) arteko koherentzia (0,5 puntura arte)
- Zonaldean sortu daitezkeen egoera problematiko konkretuetan analisisa egin eta erantzuna ematea. (0,5 puntura arte)